

Emakumeon artean

Lehen aldiko gogoekin prestatu du bere bere azken lana Izarraitz Emakume Antzerki Taldeak, eta nahiz eta azken lan honetan mutilek parte hartu, taldekoek hasierako filosofiarekin jarrai-tzen dute, hau da, taldea bera emakumeek osatzen dute.



DROGETENITTURRI- ZER IZAN ZEN ZUEN ARTEAN ANTZERKIAREN MUNDUAN SARTZERA MOTIBATU ZINTUZTENA?

Izarraitz- Ideia Ikasle Ohien bilera batean sortu zen; ariketa batean antzezlan txiki bat egin behar genuen eta ikasturte amaierarako lan txiki bat prestatzeko biltzea pentsatu genuen.

Hasieran, geure artean aurrera eramaten hasi ginen, baina gero Ricardo Combi ezagutu genuen; berak antzerkiaren mundua irakatsi zigun, tailer eta jokoen bitartez. Pertsonaia batzuk interpretatzearan ideiak animatu egin gintuen eta horrela "Requiem" jaio zen.

D.- ZER SENTITU ZENUTEN IKUSLEGOARI AURRE EGITEKO UNEAN?

I.- Ikuslegoaren aurrera irtetze-ko gai ez ginela izango pentsatu genuen, eta orain aspergarria iruditzen zaigu gauero entsaioetan besaulki hutsak begira edukitzea. Ikuslegoak jarraitzeko gogo sortzen dizu.

Antzerkia gainera droga bezalako da, hasten zarenean ezin duzu laga, gauzak ondo ateratzen direnean zuretzat oso aberasgarria da.

D.- ZENBAT EMAKUMEK OSATZEN DUZUE TALDEA?

I.- Izarraitz Taldea ez dugu antzezlan bakoitzean jendearen aurrean lan egiten dugunok bakarrik osatzen; eskenategian agertzen ez direnak ere ezinbestekoak dira.

Gaur egunean, 11 emakume gaudela taldean; lehen gehiago geunden.

D.- ZELAN MOLDATZEN ZARETE ENTSAIOAK EGITEKO ORDUAN?

I.- Alde batetik, aipatu behar dugu hasieran gure etxeetan ez zutela oso ondo ikusten, baina denbora aurrera joan ahala ohitu egin dira, eta gaur egun pozik daude gure lanarekin.

Bestalde, aurkitzen dugun oztoporik haundiena lokalik eza da; ez daukagu lokalik. Hasieran Ateneora


joaten ginen entsaioak egitera, baina aukera hori kendu egin ziguten. Hortik aurrera leku batetik bestera ibili ginen. Gero, Ikastolara joan ginen, eskenatoki daukan ikastetxe bakarra delako, baina ordutegia, arratsaldeko 7etatik 10etara, oso txarra da guretzat, etxean lan egin eta afaria prestatu behar dugulako.

Udalak "Giza Zentrua" egin zutenean lokal bat emango zigula hitz eman zigun, baina eman zigun lokalean ezin dugu eskenategi bat ipini, oso txikia delako, eta entsaioak egiteko eskenatokia behar dugu.

Ez dute gure lana baloratzen, eta beti azken egunetan Zineman presaka entsaiatzen amaitzen dugu, guk bukatu ondoren filmea dagoelako.

D.- ERMUAN ARRAKASTA HAUNDIA EDUKI DUZUE; "REQUIEM" LANA ADIBIDEZ BOST ALDIZ ERREPIKATU BEHAR IZAN ZENUTEN, BAINA ERMUTIK KANPO ZERBAIT EGIN DUZUE?

I.- Bai, badaramagu bi urte "Albox" lehiaketara joaten, eta lehe-



**BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32

**ZABALA
BURDINDENDA**

ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIK
ELEKTRIZITATEA

Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

GADIFOL -en

Aukera guztia
KODAK *garantiaz*

Komentukoa, z/g.
Tlf. eta Faxe: 17 06 71



nengo urtean lehen sariarekin etorri ginen; bueltatu ginenean jendeak ezagutzen gintuen, eta gurekin bat egiten zuten. Horrez gain, Oñatin, Martxoaren 8an agerpen bat egin genuen, eta Arrasateko Zentru Psikiatrikoan ere bai.

Kanpora ateratzen garenean gure artean sortzen diren harremanak oso onak dira, Ermuan baino hobetoak. Hemen zaudenean etxean utzi duzuna buruan daukazu, baina irtetzen zarenean dena ahazten zaitzu.

D.- ZEINTZUK IZAN DIRA ORAIN ARTE EGIN DITUZUEN LANAK?

I.- Gure lehen lana "Requiem por Antonio Pan y Agua". Berezia izan

zen, gauza ezberdinak ezagutzeko lehenengo aldia zen, horregatik esperimentzia ona izan zen guretzat.

"Lisistrata", hurrengoa, Antzerki-tailerrekoekin batera egin genuen; jende gehiagorekin lan egitea ere oso positiboa da; asko ekartzen dizu.

Gero, "Las chicas de la banda" egin genuen. Musika egitera, dantzatzera eta abestera moldatu behar izan genuen. Hauxe izan zen Ricardorekin egin genuen azkenengo lana. Ordutik beste etapa bat hasi dugu, Rosa Martinez-ekin; bera "Geroa" taldekoa da, eta antzezten ari garen azkenengo obra -"Entre nosotras"- zuzendu du, "La extraña pa-

reja"ren Ricardo Combik egindako moldaketa bat alegia.

D.- ETA HEMENDIK AUERRERA...

I.- Momentuz, nahi duguna azken lan honetan aritzea da. Gustatuko litzaiguke bira bat egitea, dauzkagun proiektu batzuk aurrera eramatea. Adibidez, aurten ere seguraski, Albox lehiaketara jonago gara. Beste irteera batzuk ere antolatuta dauzkagu, Segovia, Reinosa... Basauritik ere deitu ziguten, Martxoaren 8rako lana antzezteko, baina lanean mutil pare bat dagonez, ezin izango dugu parte hartu.

Testua: Kris eta Lidia
Argazkiak: Santos Vega





IZOTZ
KONJELATUAK

Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatua • ☎ 77 05 98



CAFES

la Brasileña

Zubiaurre -2- ERMUA - Tlf.- 17 15 67

Dastatokia

Kroasangintza
egin berria

Tlf.- 17 15 67